


EAEko familien konfiantza hoztu egin da

EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2021eko IV hiruhilekoa

0



I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV
2016	2017	2018	2019	2020	2021														

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako familien konfiantza indizea neutrala da 2020ko laugarren hiruhilekoan (0), eta atzera egin du 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako balioekin alderatuta. Iazko azken hiruhilekoan hoztu zen arren, hiru hiruhilekotan jarraian maila positiboetan eta pandemiaren aurreko balioetan kokatu da konfiantza indizea.

Konfiantza galera horren azalpena egungo ziur-


gabetasun egoerari lotuta dago. Arrisku faktore askok hor jarraitzen dute, bai pandemiarekin zuzenean lotutakoak (aldea berriak, kutsatzeen hazkundera eta murrizketak), bai ekonomiaren susperraldian duten eraginarekin lotutakoak.

Nazioarteko testuinguruan, igurikimen negatiboak orokorrak dira, eta EAEn kuantifikatu da konfiantza balio hobearekin.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2020	2021	2020		2021			
			III	IV	I	II	III	IV
Euskadi	-22	-6	-30	-33	-32	2	5	0
Europar Batasuna	-15	-9	-16	-18	-15	-7	-6	-7
Frantzia	-13	-7	-12	-16	-13	-6	-5	-6
Alemania	-10	-5	-9	-11	-11	-4	-2	-3
Espainia	-23	-13	-27	-28	-22	-11	-9	-10


EKONOMIA OROKORRA



Iritzien inkesta horren arabera, nabarmen okertzen diren osagaiak ekonomia orokorraren gaineko egoeraren balorazioari eta etxeko egoeraren balorazioari lotutakoak dira. Datu horiek erakusten dute familiek ziurgabetasuna dutela susperraldi ekonomikoaren ibilbideaz eta energiaren prezioen eta eguneroko kontsumoko produktu eta zerbitzuen bilakaeraz.

Beste aldetik, enpleguaren bilakaerari buruzko


FAMILIAREN EKONOMIA



igurikimenak positiboak dira oraindik. Izan ere, ekonomia orokorrari buruzko igurikimenak okerragoak diren arren, EAEko familiek langabezia murriztuko dela aurreikusten dute.

Familiek aurrezteko igurikimenak ere nahiko maila altuetan kokatzen dituzte. Ziurgabetasuna gastua eta inbertsioa murrizteko edo geroratzeko estrategia pertsonaletara eramaten da, aurrezpen handiagoaren mesedetan.

LANGABEZIAREN BILAKAERA



Iturria: Laboral Kutxa.

AURREZTEKO GAITASUNA

